

## Gure txapela koloretan

*Deia*, 1983-07-18.

Gaur egun ez du euskaldunak lehen hainbat txapel erabiltzen; hala ere, ikusten da oraindik.

Aintzinakoa da txapela gure herrian; baliteke hemen sortua ez izatea; hala ere, aspaldidanik dabil gure herriaren buruan, eta beste herrietan *txapela* berak beste izenak hartzen baditu ere, beti gure herriari egindako aipamenarekin hornitzen dituzte: hala, Béret *Basque*, frantsesez; beretto del *Basqui*, italiarrez; *Basque cap*, ingelesez; boina *vasca*, espainolez eta *Baskische platte mütze* alemaniarrez.

Hamaseigarren gizaldian zentral European gure txapelaren antzeko zerbait erabiltzen zuten.

Hala ere, aurretik, hamabostgarrenaz gero, bada gure herrikoen aipamenik: 1496an Santiago bidean zihoan batek (Arnold von Harff) utzi zuen Orthezko baserritar batek gazte garaian ikusia zuen txapelaren marrazkia; Andres de Poza, historialari bizkaitarrak aipatzen du baserritarrak erabiltzen duena; Canpionek dionez, Gramonteko jaunak, bere buruak txapela beltzez estalita zituzten bi mila gizonekin egin omen zion harrera Nafarroako Enrique IIgarrenari.

Veyrin idazle frantsesak gure herriaz egiten duen irazkin batetan esaten du, euskaldunak ez direla batzarretara sonbreroekin joaten, seguraski erregearen mandatariak horiek erabiltzen zituztelako; Pierre de Lancre sonatuak esaten du 1610ean, euskaldunak gorroto diotela sonbreroei, eta ez dakiela zergatik; Luis XIVgarrena Donibane Lohitzunera 1660ean heldu zenean antolatu ziren jaietan, txapela gorriak aipatzen dira; berdin dio Manier bidaiariak, 1726ko kolorezko txapelak ikusten ditu eusko gizakien buruetan; Wellington-en ofizial batek 1813ko "txapela zabalak" aipatzen ditu.

Gerra karlistetan ere bazuten txapelen koloreak zer esanik:

Hildefonso Gurrutxagak dionez, lehenengoan, *liberalek*, *Mikeleteen txapela gorriaz* estaltzen zuten burua eta "txapel gorriak" bezala ziren ezagunak. *Karlistek*, berriz, *txapela zuria* eta "txapel zuriak" bezala ezagutzen zituzten. Bigarrenean karlistetako indar berezi batzuk txapela gorria erabiltzen zuten, eta horiengandik omen dator 1936an reketeez jazen zutena.

Esparterok, 1838an egindako proklama batetan, galerazi egiten ditu txapelak, karlistak bereizten dituen zerbait balitz bezala, eta nahasketarik izan ez dadin, batez ere ihesi dihoan arerioaren atzetik liberalak dihoaztenean.

Ba da ofizialen graduak bereizteko ere erabili diren koloreak; bigarren gerran; Generalak, txapela *gorria*; Brigadierak, *urdina*; tropak, berriz, gorria, zuria edo urdina.

1936koan reketeen txapela gorrien aurrean, gudarien txapela beltzak ziren bereizgarri.

Gaurko gure ertzainak bezala. Bestela adierazten ez denean, datuak *Auñamenditik* hartu dira.